



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Nahi baduzu, garbi nazakezu”

2021eko otsailaren 14a  
Urteko 6. igandea (B)

### Marko 1, 40-45

Legendun bat etorri zitzaion erreguka, eta belauniko esan zion:

- Nahi baduzu, garbi nazakezu.

Errukiturik, Jesusek eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez:

- Nahi dut, izan zaitez garbi.

Berehala alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz:

- Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Zoaz, hala ere, azaldu apaizarengana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten.

Hura, ordea, irten orduko, gertatu berria goraki hots egiten eta zabaltzen hasi zen. Eta harrezkero, ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditzen zen, bazterretan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Nahi baduzu, garbi nazakezu. Errukiturik, Jesusek eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: Nahi dut, izan zaitez garbi.

## JAINKOAK “KUTSATUEI” HARRERA ONA

*Jose Antonio Pagola*

Ustekabean, lepradun bat «**hurbildu zaio Jesusi**». Legearen arabera, halakoak ezin du izan harremanik inorekin. «Kutsatua» da eta bakan bizi beharra du. Tenpluan ere ezin sartu da. Nolatan onartuko du Jainko bere aurrean halako izaki nazkagarri bat? Bazterturik bizitzea du bere zoria. Hori du legearen agindua.

Halaz guztiz, lepradun hau, etsirik, ausartu egin da arau guztiei desafio egitera. Badaki oker ari dela. Horregatik jarri da belauniko. Ez da arriskatu Jesusekin aurrez aurre hitz egitera. Lurretik erregutu dio: «**Nahi baduzu garbi nazakezu**». Badaki Jesusek senda dezakeela, baina nahi izango ote du? Ausartuko ote da Jesus Jainkoaren izenean ezarria dioten bazterzetik ateratzen?

Harrigarria da lepraduna hurbil ikusteak Jesusi eragin dion zirrara. Ez du nazkarik sentitu, ez du egin atzera. Gizajo haren egoera ikustean «**barneraino hunkitu da**». Gainez egin dio bihotz-samurtasunak. Nolatan ez du, ba, nahi izango garbitzea, babesik txikiena eta mespretxurik handiena jasaten duten bere seme-alabekiko Jainkoak duen errukia bera bizi duelarik?

Duda txikienik gabe, gizon harengana «**eskua luzatu**» eta garbiek mespretxatzen duten haren narrua ukitu du. Badaki legeak debekatua duela hori egitea eta, keinu horrekin, lepradunak hasia duen lege-haustea baiesten ari dela. Errukia bakarrik du, ordea, gogoan: «**Nahi dut: izan zaitez garbi**».

Hona zer nahi duen Jesusengan haragitu den Jainkoak: Aita den aldetik bizi duen errukiaren aurka doazen baztertze guztietatik mundua garbitu. Bazterketak ez dira Jainkoaren gauza, baizik gure legeena, gure erakundeena. Inor marjinatea ez dator Jainkoagandik, gugandik baizik. Aurrerantzean, denek izan beharko dute kontuan ezin dela inor baztertu Jesusen izenean.

Inongo kutsaturen aurrean ez nazkatzea esan nahi du Jesusi jarraitzeak. Inongo «bazterturi» gure abegi ona ez ukatzea. Lehenengo gauza, Jesusentzat, sufritzen ari den pertsona da, eta ez araua. Lehenetasuna arauari ematea da modurik hoberena mespretxatuen eta ukatuen aurrean Jesusen sentiberatasuna galtzen joateko. Modurik hoberena errukirik gabe bizitzeko.

Gune gutxitan suma daiteke Jesusen Espiritua babesgabeko prostitutuei, guztiek ahaztuak dituzten hiesdunei sostengua eta adiskidetasuna eskaintzen dieten, beren izaera duintasunez ezin bizi duten homosexualak... defenditzen dituzten pertsonen baitan bezala. Jainkoaren bihotzean guztiek dutela lekua gogorarazten digute halakoek.